

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BASTIDAKO UDALA

Behin betiko onespena ematea Bastidako UE3-EI xehetasun azterketari

Udalbatzak, 2026ko maiatzaren 27ko osoko bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

LEHENENGOA. Vasco-Gallega de Construcciones enpresak sustatutako Bastidako 3. Zabalgunea I egikaritze unitatearen xehetasun azterlana behin betiko onestea.

BIGARRENA. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

HIRUGARRENA. Erabaki hau jakinaraztea jabeei eta xehetasun azterketak zuzenean eragiten dien gainerako interesdunei.

LAUGARRENA. Erabaki hau hirigintzaren arloan eskumena duen foru organoari jakinaraztea.

Argitara ematen da, denek haren berri izan dezaten eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikulua eta ekainaren 23ko 2159/1978 Dekretuaren bidez onetsitako Lurzoruaren Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legea garatu eta aplikatzeko Plangintza Araubidearen 140.6 artikulua betez.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta, beraren aurka, aukerako beraztertzeko errekurtsua aurkez dakioke udal honetako osoko bilkurari, hilabeteko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluekin bat etorritz; bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluekin bat etorritz. Nolanahi ere, norbere alde egiteko egokiago jotzen den beste edozein errekurtsu ere aurkez daiteke.

Bastida, 2026ko maiatzaren 29a

Alkate-lehendakaria
DANIEL GARCÍA RUIZ